

IRAKASGAIEN PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAREN LABURPENA 2025-2026



BENTADES IKASTETXEA

Ikasgaia/ Arloa	PRESTAKUNTZA ETA ORIENTAZIO LABORALA		
Irakaslea(-k)	Imanol Egia	Ikasturtea 2025-2026	2025 / 2026
Zikloa/ Maila	DBH4	Talde kopurua	1

JUSTIFIKAZIOA

Programazio hau irakasgai bakoitzeko testuingurua kontuan hartuta garatu da, eta helburu nagusia ikasleen ikaskuntza esperientzia ahalik eta eraginkorrena izatea da. Lehenik eta behin, ikasleen abiapuntua aztertzen da, bakoitzaren gaitasunak, aurrezko ezagutzak eta behar bereziak identifikatuz. Ondoren, gelaren egoera eta ikastetxearen errealitate zehatza kontuan hartuta, programazioak ikaskuntza esanguratsua sustatuko duten estrategiak proposatzen ditu.

Urtez urte egindako memoriak eta hobekuntza-proposamenak erreferentziatzen hartuta, programazio honek aurreko ikasturteetan identifikatutako hutsuneak zuzentzea eta indarguneak areagotzea du helburu. Ikasleen garapen akademikoa, soziala eta pertsonala optimizatzeko, programazioa etengabeko ebaluazioaren bidez egokitu eta hobetu egingo da, beti ere, kalitatezko hezkuntza eskaintzeko konpromisoari eutsiz

FUNTSEZKO KOMPETENTZIAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
Hizkuntza Komunikaziorako kompetentzia (HKK) Konpetentzia Eleaniztuna (KE) Matematikarako kompetentzia eta zientzia, teknologia eta ingenieritzarako kompetentzia (STEM) Konpetentzia Digitala (KD) Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa (KPSII) Herritartasunerako Konpetentzia (HK) Ekintzailtza Konpetentzia (EK) Kontzientzia eta adierazpide kulturalerako Konpetentzia (KAKK)	<u>Ikus anexo</u>

KOMPETENTZIA ESPEZIFIKOAK eta EBALUAZIO IRIZPIDEAK (LINK)

<p>1.Kognizioan, motibazioan eta ikaskuntzan inplikaturako prozesu fisikoak eta psikologikoak ulertzea, jokabidean dituzten inplikazioak aztertuz eta kudeaketa emozionalerako eta ikasteko prozesurako estrategiak garatuz, eremu pertsonalean, sozialean eta akademikoan jarduna hobetzeko eta ingurune analogiko eta digitaletan ekintzen eta haien ondorioen gaineko kontrol handiagoa lortzeko.</p>	<p>1.1. Jardun pertsonala, soziala eta akademikoa hobetzea, ekintzen eta haien ondorioen gaineko kontrol handiagoa ahalbidetuko duten ikaskuntza eta kudeaketa emozionaleko estrategiak aplikatuz.</p> <p>1.2. Ikaskuntzan esku hartzen duten prozesuak ezagutzea, haien inplikazioak aztertuz eta ezagutzak eskuratzea erraztuko duten estrategiak garatuz.</p> <p>1.3. Osagai emozionalaren garrantzia aztertzea, ikaskuntzan duen eraginaz jabetuz eta prozesu kognitiboa hobetuko duten estrategiak garatuz.</p> <p>1.4. Kognizio, motibazio, ikaskuntza eta kudeaketa emozionalean esku hartzen duten prozesu fisiko eta psikologikoen funtsezko oinarri teorikoak ezagutzea, jokabidean duten eraginari buruzko gogoeta eginez.</p>
<p>2.Pertsonaren garapen ebolutiboaren ezaugarri nagusiak ulertzea, portaerak edo jarduketak baldintzatzen dituzten helduaroko elementuak aztertuz eta norberaren eta besteen ezaugarri pertsonalak eta gizarte-harremaneak identifikatuz eta indartuz, autonomia handiagoarekin moldatzeko eta helduaroko bizitzarako bidean planteatzen diren erronka berriei eraginkortasunez aurre egiteko.</p>	<p>2.1. Erronka berriei eraginkortasunez eta gero eta autonomia handiagoarekin aurre egitea, norberaren eta gainerakoen ezaugarri pertsonalak eta sozialak identifikatuz eta garapen ebolutiboaren prozesuan portaerak eta jarduketak baldintzatzen dituzten elementuak aztertuz.</p> <p>2.2. Pertsonen garapen ebolutiboa ezagutzea, aldaketak eragiten dituzten eta pertsona hainbat mailatan (kognitiboan, sozialean eta emozionalean) osatzen duten helduaroaren ezaugarri nagusiak aztertuz eta ulertuz.</p> <p>2.3. Norberaren eta gainerakoen ezaugarriak identifikatzea, erronka berriei eraginkortasunez aurre egiteko eta nerabegarotik helduarorako trantsizio-prozesua errazteko beharrezkoak direnak bultzatzearen garrantziari buruzko gogoeta eginez.</p>
<p>3.Gizakia eta haren gizarteak eta kulturak ulertzeko zereginera jakin-minez eta ikuspegi aniztatetik abiatuta hurbiltzea, aniztasuna desberdina eta askotarikoa denarekiko errespetutik aztertuz eta bestearen lekuan jarritz, haren konplexutasuna zein testuingurua ulertzeko eta funtzionamendu sozial eta kulturala zuzentzen duten gai eta alderdien inguruko espiritu kritikoa sustatuz.</p>	<p>3.1 Gizakiaren konplexutasuna ulertzea eta haren funtzionamendu psikologiko, sozial eta kulturalari buruzko espiritu kritikoa sustatzea, funtzionamendu hori ezagutuz eta hainbat ikuspegitatik ulertuz eta desberdina eta askotarikoa denarekiko errespetu- eta enpatia-jarrerak agertuz.</p> <p>3.2 Gizakia, gizarteak eta kulturak ulertzea, giza eta gizarte-zientziek ematen duten ezagutzatik abiatuta gogoeta kritikoa eginez.</p>

<p>4. Gizakiaren dimentsio soziala eta antropologikoa ezagutzea, pertsonaren konfigurazio psikologikoan esku hartzen duten faktore pertsonalak eta soziokulturalak kontuan hartuz, bere burua besteein alderatuta ulertzeko eta testuinguru aldakorretara eta talde desberdinetara egokitutako estrategia eta trebetasun sozialak garatzeko, aniztasun pertsonala, soziala eta kulturala errespetatuz eta baloratuz.</p>	<p>4.1. Bere burua gainerakoekin alderatuta hobeto ulertzea eta talde eta testuinguru berrietara egokitzea erraztuko duten estrategia eta trebetasun sozialak garatzea, gizakiaren dimentsio sozial eta antropologikoaren ezagutza erreferentzia gisa hartuz eta pertsonaren konfigurazio psikologikoan esku hartzen duten faktoreak aztertuz, aniztasunaren baloraziotik eta errespetutik abiatuta.</p> <p>4.2. Pertsonaren konfigurazio psikologikoan esku hartzen duten faktore pertsonalak eta soziokulturalak aztertzea, gizakiaren dimentsio sozial eta antropologikoaren ezagutza konparatutik abiatuta.</p> <p>4.3. Aniztasuna baloratzea, maila pertsonal, sozial eta kulturalean elementu aberasgarritzat eta baliosutzat hartuz.</p>
<p>5. Behar eta interes pertsonalak eta bokaziozkoak aurkitzea eta lehenestea, eta inguruneak eskaintzen dituen aukera akademiko eta profesionalak ikertzea, moldagarritasuna, ekiteko eta hobetzeko espiritua eta erabakiak hartzeko beharrezkoak diren trebetasunak garatuz, proiektu pertsonal, akademiko eta profesional bat burutzeko eta enplegu-bilaketa aktibo baterako plan baten diseinura hurbiltzeko.</p>	<p>5.1. Proiektu pertsonal, akademiko eta profesional propioa egitea eta enplegua aktiboki bilatzeko prozesura hurbiltzea, beharrak lehenetsiz, interes pertsonalak eta bokaziozkoak aurkituz ingurune analogikoak eta digitalak eskaintzen dituzten aukera akademikoak eta profesionalak ikertzearen bidez, eta erabakiak hartzeko prozesuan beharrezkoak diren trebetasunak garatuz.</p> <p>5.2. Hurbileko ingurunea ikertzea, eskaintzen dituen aukera akademikoak eta profesionalak identifikatuz eta ezaugarri eta interes pertsonaletara hobekien egokitzen direnak baloratuz.</p> <p>5.3. Proiektu pertsonal, akademiko eta profesional propioa diseinatzea, hiru planoak uztartuz (autoezagutzari, ingurune akademiko eta profesionalaren ezagutzari eta enpleguaren bilaketa aktiborakohurbiltzetari buruzkoak).</p>

SEKUENTZIA eta DENBORALIZAZIOA

1. ebaluaketa

Unitatearen / Ikas egoeraren izenburua / Zer ebaluatuko da?	BALIOAK	<u>Konpetentzia espezifikokoak laburtuta</u>
<p align="center">1. FROGA (1. eta 2. Gaiak)</p> <p>1.- Psikologia eta nortasunaren garapena 2.- Autokontzeptua eta Lan-orientazioa</p>	<p align="center">35%</p>	<input checked="" type="checkbox"/> 1.-Kognizio prozesuak ulertu eta emozioak kudeatzea
		<input checked="" type="checkbox"/> 2.-Garapen ebolutiboa eta harreman sozialak aztertzea
		<input checked="" type="checkbox"/> 3.-Gizakia, gizartea eta kultura ikuspegi kritiko eta anitzetik aztertzea
		<input checked="" type="checkbox"/> 4.-Faktore pertsonal eta soziokulturalak kontuan hartzea
		<input checked="" type="checkbox"/> 5.-Orientazio pertsonala eta profesionala lantzea
<p align="center">2. FROGA (3. Gaia)</p>		<input checked="" type="checkbox"/> 1.-Kognizio prozesuak ulertu eta emozioak kudeatzea
		<input checked="" type="checkbox"/> 2.-Garapen ebolutiboa eta harreman sozialak aztertzea

3.- Lan mundua eta lanbideak	35%	<input checked="" type="checkbox"/>	3.-Gizakia, gizartea eta kultura ikuspegi kritiko eta anitzetik aztertzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	4.-Faktore pertsonal eta soziokulturalak kontuan hartzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	5.-Orientazio pertsonala eta profesionala lantzea
PORTFOLIOA 1.- Psikologia eta nortasunaren garapena 2.- Autokontzeptua eta Lan-orientazioa 3.- Lan mundua eta lanbideak	20%	<input checked="" type="checkbox"/>	1.-Kognizio prozesuak ulertu eta emozioak kudeatzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	2.-Garapen ebolutiboa eta harreman sozialak aztertzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	3.-Gizakia, gizartea eta kultura ikuspegi kritiko eta anitzetik aztertzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	4.-Faktore pertsonal eta soziokulturalak kontuan hartzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	5.-Orientazio pertsonala eta profesionala lantzea
JARRERA	10%	<input checked="" type="checkbox"/>	1.-Kognizio prozesuak ulertu eta emozioak kudeatzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	2.-Garapen ebolutiboa eta harreman sozialak aztertzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	3.-Gizakia, gizartea eta kultura ikuspegi kritiko eta anitzetik aztertzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	4.-Faktore pertsonal eta soziokulturalak kontuan hartzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	5.-Orientazio pertsonala eta profesionala lantzea
2. ebaluaketa			
Unitatearen / Ikas egoeraren izenburua	BALIOAK		<u>Konpetentzia espezifikoak laburtuta</u>
1. FROGA (4. eta 5. Gaiak) 4.- Enplegu bilaketa eta ekintzailtza 5.- Lan eskubideak eta lan baldintzak	45%	<input checked="" type="checkbox"/>	1.-Kognizio prozesuak ulertu eta emozioak kudeatzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	2.-Garapen ebolutiboa eta harreman sozialak aztertzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	3.-Gizakia, gizartea eta kultura ikuspegi kritiko eta anitzetik aztertzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	4.-Faktore pertsonal eta soziokulturalak kontuan hartzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	5.-Orientazio pertsonala eta profesionala lantzea
2. FROGA (6. Gaia) 6.- Laneko arriskuen prebentzioa	45%	<input type="checkbox"/>	1.-Kognizio prozesuak ulertu eta emozioak kudeatzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	2.-Garapen ebolutiboa eta harreman sozialak aztertzea
		<input type="checkbox"/>	3.-Gizakia, gizartea eta kultura ikuspegi kritiko eta anitzetik aztertzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	4.-Faktore pertsonal eta soziokulturalak kontuan hartzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	5.-Orientazio pertsonala eta profesionala lantzea
JARRERA	10%	<input checked="" type="checkbox"/>	1.-Kognizio prozesuak ulertu eta emozioak kudeatzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	2.-Garapen ebolutiboa eta harreman sozialak aztertzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	3.-Gizakia, gizartea eta kultura ikuspegi kritiko eta anitzetik aztertzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	4.-Faktore pertsonal eta soziokulturalak kontuan hartzea

		<input checked="" type="checkbox"/>	5.-Orientazio pertsonala eta profesionala lantzea
3. ebaluaketa			
Unitatearen / Ikas egoeraren izenburua	Konpetentzia espezifikoak	<u>Konpetentzia espezifikoak laburtuta</u>	
LANAK	40%	<input checked="" type="checkbox"/>	1.-Kognizio prozesuak ulertu eta emozioak kudeatzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	2.-Garapen ebolutiboa eta harreman sozialak aztertzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	3.-Gizakia, gizartea eta kultura ikuspegi kritiko eta aniztetik aztertzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	4.-Faktore pertsonal eta soziokulturalak kontuan hartzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	5.-Orientazio pertsonala eta profesionala lantzea
PORTFOLIOA 1.- Psikologia eta nortasunaren garapena 2.- Autokontzeptua eta Lan-orientazioa 3.- Lan mundua eta lanbideak 4.- Enplegu bilaketa eta ekintzailtza 5.- Lan eskubideak eta lan baldintzak 6.- Laneko arriskuen prebentzioa	50%	<input checked="" type="checkbox"/>	1.-Kognizio prozesuak ulertu eta emozioak kudeatzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	2.-Garapen ebolutiboa eta harreman sozialak aztertzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	3.-Gizakia, gizartea eta kultura ikuspegi kritiko eta aniztetik aztertzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	4.-Faktore pertsonal eta soziokulturalak kontuan hartzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	5.-Orientazio pertsonala eta profesionala lantzea
JARRERA	10%	<input checked="" type="checkbox"/>	1.-Kognizio prozesuak ulertu eta emozioak kudeatzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	2.-Garapen ebolutiboa eta harreman sozialak aztertzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	3.-Gizakia, gizartea eta kultura ikuspegi kritiko eta aniztetik aztertzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	4.-Faktore pertsonal eta soziokulturalak kontuan hartzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	5.-Orientazio pertsonala eta profesionala lantzea
BERRESKURAPEN eta INDARTZE SISTEMA			
<p>DBH guztian ebaluaketa jarraia edo etengabekoa da. Ebaluaketa guztietan errekerazioak egingo dira eta errekeraketa horietan menperatzen ez diren gaiak soilik sartuko dira. Horrela gainditu gabeko ebaluaketa bat gainditzeko beste aukera bat egongo da. Ekainean gainditu ez dena gainditzeko aukera egongo da. Ebaluaketa bakoitza gainditzeko ezinebestekoa izango da edukien %50 gaindituta izatea. Ekainean irakasgaia gainditu gabe geratzen bada ikasleek hurrengo kurtsoko edozein ebaluaketa gaindituz gero, aurreko ikasturtea gainditzat emango da. Ikasleak eskatuz gero, irakasleak udan lan egiteko materiala eskainiko die ikasle hauei.</p>			
ETENGABEKO EBALUAZIO SISTEMA: KALIFIKAZIO TRESNAK eta IRIZPIDEAK			

Ebaluazioa hezitzailea izango da. Ebaluazioak ikasleen aurrerapenak identifikatzera eta ikasleek izan ditzaketen zailtasunak hautematera bideratuta dago; irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintzan zailtasun horiek zuzentzen lagunduko duten erabakiak hartu daitezten. Horrela, prozesu didaktikoa ikasleen beharretara egokituko da. Ikasleen ikasketak ez ezik, ikasteko prozesuak ere ebaluatuko dira. Ebaluazioa konpetentziak ebaluatzen zuzenduko da (ez oinarritzako jakintzak ebaluatzen). Konpetentzia espezifikoen ebaluazio-irizpideak izango dira ikaskuntza-prozesuen erreferente. Ikastetxearen autonomiaren barruan eta ikasgelaren ezaugarri erantzuna emateko, ebaluazio-irizpideak egokitu dira. Ebaluazioa globala, etengabea eta prestakuntzako da. Ebaluazioa eguneroko jardunean txertatuta egongo da eta ez soilik bukaeran. Irakasle-taldeak, ikasturtea amaitzean, azken ebaluazio-saioa egingo du ikasleek lortutako konpetentzia-garapena aztertu ondoren.

Ebaluazio eragileak: autoebaluazioa, koebaluazioa eta heteroebaluazioa.

Ebaluazio tresnak eta erremintak: askotariko ebaluazio tresnak erabiliko dira, ikasleen ezaugarri eta premia indibidualak egokituz (aurkezpenak, galdetegiak, iruzkinak, frogak, ekoizpenak, audioak, bideoak...). Ebaluazio erremintei dagokienez, kontrol zerrendak, errubrikak, balorazio eskalak, etab, erabiliko ditugu.

METODOLOGIA

Programazio honetan erabilitako metodologia ikasle bakoitzaren ikaskuntza erritmoa eta estiloa errespetatzen duten jarduerak eta estrategietan oinarritzen da. Ikaskuntza aktiboa eta kooperatiboa sustatzen da, non ikasleek beren ikaskuntza-prozesuan protagonismoa hartzen duten. Horretarako, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, problemak ebazpena, eta egoera errealean oinarritutako ikaskuntza erabiliko dira, ikasleen motibazioa eta autonomia bultzatuz.

Materialak eta jarduerak anitzak eta eskuragarriak izango dira, aniztasuna errespetatuz eta ikasleen beharretara egokituz. Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU) kontuan hartuta, material didaktikoak eta ebaluazio tresnak inklusiboak izango dira, ikasle guztien parte-hartzea bermatzeko. Era berean, teknologia berrien erabilera sustatuko da, ikaskuntza prozesua aberasteko eta ikasleen trebetasun digitalak garatzeko.

Azkenik, ebaluazio formatiboa eta etengabea izango da, ikasleen aurrerapenak aztertzeko eta beharrezko egokitzapenak egiteko. Metodologia hau ikasleen motibazioa eta inplikazioa handitzea du helburu, gaitasun guztiak modu integral eta orekatuan garatzeko.

ANIZTASUNARI ERANTZUTEA

Ikasleen aniztasuna kontuan hartzea ezinbestekoa da hezkuntza inklusibo eta kalitatezko bat bermatzeko. Ikasle bakoitzaren behar bereziak eta ezaugarri indibidualak identifikatzen dira, eta horien arabera egokitutako estrategia didaktikoak garatzen dira. Horretarako, hainbat baliabide eta metodologiak erabiltzen dira, hala nola, ikaskuntza pertsonalizatua, taldekatze malguak eta edukiak egokitzea.

Aniztasunari erantzuteko, irakasleek banakako arreta eskaintzen dute, ikasleen garapen akademikoa eta emozionala hobetzeko. Material gehigarriak, errefortzu-saioak eta testuinguru desberdinetara egokitutako jarduerak eskaintzen dira, ikasle bakoitzaren erritmoa eta gaitasunetara moldatuz. Gainera, indartze eta sakontze jarduerak proposatzen dira, ikasleek ikasgaiak ondo menderatzen dituztenean, haien jakintza zabaltzeko.

Programazioetan, Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU) oinarri hartuta, aniztasunari erantzuteko estrategiak modu inklusiboan planifikatzen dira. IDUren bidez, ikasle guztien gaitasunak eta estilo ezberdinak kontuan hartzen dira, eta materialak, metodologia eta ebaluazio tresnak egokitzen dira ikasleen premietara. Honela, ikaskuntza esanguratsua eta eraginkorra bermatzen da, aniztasunaren aberastasuna baliatuz ikasle guztiek arrakasta izateko aukera izan dezaten.